

A large red diagonal shape occupies the top-left portion of the page. A grey dot pattern, consisting of small circles arranged in a grid, is visible in the top-right and bottom-left corners.

IRAKASLEENTZAKO GIDA DIDAKTIKOA

**BESTE
KALEAK ♀**

BESTEKALEAK

unitate didaktikoa

BESTE KALEAK IRAKASLEENTZAKO GIDA DIDAKTIKOA

AURKIBIDEA

03 **Sarrera.** Gida honen helburua

04 Zer da Beste Kaleak?

05 **Konpetentziak**

07 **Metodologia**

08 **Taldeak sortu, rolak zehaztu**

11 **Lanketa-prozesua**

12 Euskal Herriko emakumeen historiara gerturatzen

14 Historialari izan

15 Idazle izan

17 Editore izan

25 Zure herriko kaleak izendatu

26 Kale-izenak mapan kokatu

27 Ekintzaile bihurtu

28 Amaierako ebaluazioa

34 **Webgunearen erabilerari buruz**

Sarrera.

Gida honen helburua

Gida honen helburua da ikasleen gertuko errealitatetik abiatuta herriko historiari begirada bat ematea. Historia garaileek idatzi dutela esan ohi da eta baieztapen horri gizonen idatzi dutela gehitu beharko litzaioke.

Genero-desorekaren erronka ikasgeletara eramateko helburuarekin idatzi da gida hau, iraganean oina eta etorkizunean begirada jarrita, egoera iraultzeko ikasleen jarrera aktiboa bultzatzeko.

Gida honen bidez proposatzen dugun lanketaren helburua **gure inguruko kale gehiagok emakume-izena izatea** da. Helmuga horretara iristeko, ikasleei gaiaren inguruko lanketa zehatz bat egitea proposatzen zaie eta amaieran eskaera bat egingo da.

Lanketa honen amaierako helburua **ikasleak euren herriko emakume esanguratsuen bizitza eta historian egindako ekarpena gerturatzea** da eta **planteatutakoa bezalako desberdintasun-egoera jakin bat iraultzeko ekintza aktiboak egin daitezkeela erakustea**.



Garenaz hausnartu ahal izateko, ginea ezagutu behar dugu lehenbizi. Ariketa zaila, ordea, historia egin dutenen erdiak garaiko liburu, aldizkari eta egunkarietatik at daudenean. Emakumeak falta zaizkigu historia-liburuetan, Wikipedian, zientzia-aldizkarietan eta filmetako protagonisten artean.

Gida honek gai honen inguruan hausnarketa egiteko eta jarrera aktiboa hartzeko pausoak jasotzen ditu. Izan ere, emakumeek egindako ekarpen horiek bistaratzea guztion betebeharra da.

Nola proposatzen da lanketa egitea?

- Ikasleek euren herrietako emakume esanguratsuen bizitzak ezagutuko dituzte.
- Informazio-bilketa ezberdinak egingo dira, Internet bidez, elkarriketen bidez.
- E-mail Interneten argitaratuko da, iragana idatziz etorkizuna marrazteko.
- Gaur egun herriko kaleen generoaren mapa bat sortuko dute ikasleek.
- Horrekin guztiarekin, egoera iraultzeko hausnarketa sustatuko da, ekintzailetzarekin batera.

Zer da Beste Kaleak?

Esku artean daukazun gida hau proiektu zabalago baten zati bat da. Iametzan gaiaren gainean daukagun erantzukizuna praktikara ekarri nahi izan genuen eta 2020. urtean, Beste Kaleak proiektua sortu genuen Euskal Herriko historia idatzi duten emakumeen ekarpenak bistaratzeko helburuarekin. Gaur egun, bestekaleak.eus-ek Euskal Herriko 50 emakume esanguratsu baino gehiagoren ekarpenak biltzen ditu.

Bestekaleak.eus webgune honetan, emakumeen bizimodu eta bizipenez gain, egun dagokien lekua eskuratzeko kale-izendegietarako plakak eskuratu daitezke. Izan ere, askok dagoeneko bere izena jasotzen duten kalea badute, eta haiek mapa batean jaso ditugu. Baina oraindik emakume horien izeneko kalerik ez dagoen kasuetarako, plakak sortzen ditu webgune honek.

Eulalia Abaitua ezagutzen den lehenengo emakume argazkilaria, Kattalin Agirre Commete sare ezaguneko zutabe garrantzitsua edota Elvira Zipitria garai ilunenetan ere ikastolen mugimenduen sortzaile. Hauek eta beste hainbat emakumeren bizimodua jaso dugu proiektu honetan.

Euskal Herriko emakume esanguratsuen bizitzak biltzearekin batera, proiektu honen beste helburu garrantzitsu bat guztion arteko lankidetzat da. Horregatik, webgune hau dinamikoa izateko diseinatu da eta herritarra izatea nahi dugu. Norberak bere ekarpenak egin ditzake webgunean, guztion artean gertutik ezagutzen ditugun emakumeen bizimoduari omen egiteko.

Ongi etorria ematen dizugu gida honetara eta Beste Kaleak proiektua ikasgeletara eramatera gonbidatzen zaitugu, hausnarketa eta jarrera aktiboa baliatuz bide honetan urratsak egiten jarraitzeko.

Konpetentziak.

Lortu nahi diren helburu didaktikoak

Beste Kaleak 10-12 urte arteko ikasleentzat pentsatutako lanketa da, LH5-LH6 mailetako ikasgeletan lantzeko. Lanketa horrek honako oinarritzko konpetentzietan trebatzea bilatzen du, Heziberri 2020ren arabera (236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena).

Oinarritzko barne-konpetentziak:

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia; elkarrekin bizitzen jakitea

Proiektu honen ardatzetako bat talde-lana da. Horren ondorioz, ikasle bakoitzak norberaren erantzukizunak onartu eta elkarlanean aritu beharko du, pertsonen eta iritzien arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz. Elkarriketaren eta negozioaren bitartez, gatazkei konponbidea aurkitzen ere trebatuko dira. Era berean, egitasmo honek bilatzen duen helburu nagusietako bat parekidetasunean hezte da. Horrenbestez, gizonetako eta emakumezkoen arteko berdintasuna lantzen du bete-betean.

Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia

Komunikatzen jakitea. Ikasleek taldean egindakoa kontatu eta komunikatu beharko dute. Horretarako, hizkuntza modu egoki, eraginkor eta arduratsuan erabiltzen ikasiko dute.

Oinarrizko zehar-konpetentziak:

Norberaren autonomiarako konpetentzia; izaten jakitea

Taldean lan egin beharko dutenez, ikasle bakoitzak bere emozioak eta jokabide morala autorregulatu beharko ditu, erabakiak hartu eta betebeharrak betetzeko, norberaren motibazioa eta nahimena autorregulatu eta nork bere erabakiak hartu eta erantzukizunak onartu.


Elkarbizitzarako konpetentzia

Proiektu honen ardatzetako bat talde-lana da. Ondorioz, ikasle bakoitzak norberaren erantzukizunak onartu eta elkarlanean aritu beharko du, pertsonen eta iritzien arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz.

Metodologia orokorra.

Planteamendu didaktikoaren azalpena

Lanketa egiteko, zazpi urratseko prozesu bati jarraitzea proposatzen da:



U forma duen prozesu baten formarekin planteatzen da. Norbanakoaren abiapuntutik eta hainbat ekintza zehatzen bidez, barne-prozesu bat izaten delako eta horrek bultzatuta, amaieran, gizarteari ekarpena egiten zaiolako.

Lanean hasi baino lehen: **Taldeak osatu, rolak zehaztu**

Materiala honako irakasgaietako batean lantzea proposatzen da:

- Euskara
- Zientzia eta Teknologia
- Balioak

Irakasgai horietako ikasleen artean taldeak osatu beharko dira; lau kideko taldeak osatzea proposatzen da. Ikasleek helburu komunarekin egin behar dutenez lan, behartuak egongo dira euren arteko rolak eta zereginak banatzera eta elkarrekin lan egitera, euren arteko lankidetzari indartuz. Lanketa hau egiteko, beraz, **Ikasketa Kooperatiboaren metodologiari (IK/KI)** jarraitzea proposatzen da.

Lankidetzari hori bultzatzeko, ikasleei fitxa moduko batzuk banatuko zaizkie. Fitxa horiek taldeko kideen elkar-ezagutza bilatuko dute eta, horren ondorioz, rolen banaketa errazago egitea.

Hauek dira aurreikusten diren rolak:

- **Behatzailea.** Denbora kontrolatu, zarata maila gainbegiratu, taldekide guztiak aintzat hartzen direla bermatu, taldearen helburuak betetzen direla egiaztatu.
- **Idazkaria.** Banakako eta taldeko konpromisoak gogorarazi, egiteko dauden lanak gogorarazi, egindakoa jaso, materiala zaindu.
- **Koordinatzailea.** Egin behar den lana argi eta garbi ezagutu, taldeko eginbeharrak banatu, taldeko ebaluazioa gidatu, bakoitzak bere lana betetzen duela egiaztatu.
- **Bozeramailea.** Beste ikaskideei taldearen ekarpenen berri eman, taldeko zalantzak irakasleari galdetu, taldeko lana aurkeztu.

Lankidetzari bultzatzeko, ikasleei fitxa moduko batzuk banatuko zaizkie.

Elkar ezagutza sustatzeko, honako galderei erantzun beharko diete:

- Zertan naiz ona?
- Zer dut gustuko?
- Zertan behar dut laguntza?

Fitxa horiek taldeko kideen elkar-ezagutza bilatuko dute eta, ondorioz, rolen banaketa errazago egitea bilatzen da.

GURE EZAUGARRIAK

Taldekiddeen izenak:	Zertan naiz ona?	Zer dut gustuko?	Zertan behar dut laguntza?

Fitxa horiek taldeko kideen elkar-ezagutza bilatuko dute eta, horren ondorioz, rolen banaketa errazago egitea bilatzen da.

Era berean, ikasleek jakin behar dute zer rol bete beharko dituzten talde-lanean. Horretarako, honako fitxa hau banatuko zaie:

TALDEKO ROLAK



BEHATZAILEA

1. Denbora kontrolatzea.
2. Zarata maila gainbegiratzea.
3. Taldekide guztiak aintzat hartzen direla bermatzea (zoriontzea, laguntza eskaintzea, iritzi guztiak entzutea, errespetua)
4. Taldearen helburuak betetzen direla egiaztatzea.

IDAZKARIA

1. Banakako eta taldeko konpromisoak gogoraraztea.
2. Egiteko dauden lanak gogoraraztea.
3. Taldeko koadernoan egindakoa jasotzea.
4. Materiala zaintzea (dena jasota eta garbi uztea).




KOORDINATZAILEA

1. Egin behar den lana argi eta garbi ezagutzea.
2. Taldeko eginbeharrak banatzea.
3. Taldeko ebaluazioa gidatzea.
4. Bakoitzak bere lana betetzen duela egiaztatzea.



BOZERAMAILEA

1. Beste ikaskideei taldearen ekarpenen berri ematea.
2. Taldeko zalantzak irakasleari edo beste taldeko ikaskideren bati galdetzea.
3. Taldeko lana aurkeztea.



Lan taldeak osatuta daudela, lanketa prozesuari hasiera emango diogu. Jarraian, fase edota aste bakoitzari dagokion azalpena jaso dugu:

Lanketa prozesua

Faseak eta kronograma

Egitasmoaren iraupena alda daiteke, baina gutxi gora behera , bi hilabetetan egiteko pentsatu eta diseinatu da. Hala, lanketa 9 astetan egiteko pentsatuta dago, aste bakoitzeko ordubeteko lanketarekin.

Jarraian, kronograma orokorra jaso dugu:

1. ASTEA

Informazioa ezagutu:
Euskal Herriko hainbat
emakume esanguratsuren
aurkezpena.

2. ASTEA

**Informazioa bildu:
herriko emakume
esanguratsu baten
bizitza ikertu.**

3. ASTEA

**Informazioa idatzi,
argazkiz hornitu eta
irakasleari entregatu.**

4. ASTEA

Irakasleak zuzendutako informazioa Txipedian eta bestekaleak.eus-en gehitu.

5-6 ASTEAK

**Herriko kaleak izendatu
kaleen izenen generoa
adierazi, kopuru
osoarekiko zer ehunekok
duen emakume izena
jakiteko.**

7. ASTEA

**Izendatutako kale
izenak mapan kokatu.**

8. ASTEA

Taldeak landutako emakumearen izenaren plaka bat inprimatu eta udalera kale izen hori jartzeko eskaera idatzia bideratu.

9. ASTEA

Amaierako ebaluazioa egin.

Euskal Herriko emakumeen historiara gerturatzen

Kale bati pertsonaia historiko baten izena ematea hark historiari egindako ekarpena oharatzeko eta gogoratzeko modu bat da. Gure inguruko kaleei erreparatzen badiegu ordea, ikusiko dugu oso gutxi dutela emakume-izena. Zergatik? Ez al dute haiek historiaren zati bati idatzi?

Galdera hori abiapuntutzat hartuta, gelan bi jarduera hauek egitea proposatzen dugu, gaia ikasleei aurkezteko:

- 1. Egoeraz jabetzeko galdetegi orokor bat gelan landu.** Jarraian, landu daitezkeen zenbait galdera proposatzen ditugu:
 - Zergatik ematen zaizkie kaleen izenak historian ekarpena egin duten pertsonen?
 - Gelan 22 ikasle badira, ikasle horien zenbat kalek dute emakumeen izena?
 - Gizonezkoen izena daramatenekin alderatuta, asko edo gutxi dira?

- 2. Ikasleak Euskal Herriko emakumeen historiara gerturatu.** Behin hasierako galdetegia gelan komentatu dugula, Euskal Herriko zenbait emakumeri buruzko informazioa gerturatzeko unea da. Euskal Herrian arlo desberdinetan zeresan handia izan duten eta ahaztuak izan diren emakumeak aurkezteko unea, alegia. Horretarako, www.bestekaleak.eus webgunean jaso ditugun 50 emakumeri buruzko informazioa baliatuko da. Adibide bezala, jarraian, Balendiñe Albizu poetaren fitxa jaso dugu.



ELKARBANATU



Balendiñe Albizu

Poeta

1914-09-18 - 2002-09-20

Balendiñe Albizu (Zumaia, Gipuzkoa, 1914ko irailaren 18a - ib., 2002ko irailaren 20a) euskal idazlea izan zen, poeta.

Balendiñe Zumaian jaio zen. Ama, Endañeta baserriko Manuela Aizpurua. Aita, Juli Simon Albizu, itsas-gizona. Zazpi senideren artean seigarrena eta neska bakarra. Aita Gran Solen zela jaio zen Balendiñe. Bost urte zituela hasi zen eskolan eta ez zekien gaztelaniaz. Buruz ikasi behar izan zituen hitz zerrenda luzeak. Hamabi urterekin amaitu zituen hango kontuak, Aritmetika eta Geografia apur bat ikasita.

Lehen urratsak

14 urte zituela Julio Beobide eskultorearen modelo lanean hasi eta haren modelorik ezagunenetakoa bihurtu zen. Beobide eskultoreak Balendiñeren gaztetako irudia, behin eta berri, tailatu zuen egurrean.

Lantegi hartan bideratu zuen Bakendiñek arterako bokazioa. Jakinminak piztu zion irakurtzaletasuna ere Garai hartan elizako liburutatik aparte, ezin zen beste askorik irakurri. Nobelak irakurtzea ere pекatu zen. Balendiñek ezkutuan landu behar izan zuen bere zaletasun hori. Victor Hugo, Unamuno, Baroja eta Clarin bere kuttunen artean. Irakurketaz gozatzek idazteko gogo sortu zion. Literaturgintzarako bere bokazioa autodidakta lege lan eginez burutu zuen.

Antzerkiaren munduan ere murgildu zen Balendiñe. Izan ere, Zumaian, Batzokian politikaz aritzeko elkartzean, antzerkigintzan ere aritzen baitzen Joxe Etxaberekin.

Gerra Zibila

Gaztaroa laister goibeldu zitzaion Balendiñeri. Gerra Zibila aurrera zihoala, frankotarrak Donostiaz jabetu ziren eta 1936ko irailaren 21ean, itsasontzi bat hartu zuen jaioterrian eta Ondarroara jo. Emakume bakarra zen berrogeiren bat gizasemeren artean; berarekin zihoazen lau neba. Berehala, ordea, elkarrengandik galdu eta sakabanatu egin ziren. Eta horrela, lehendik ezaguna zuen Ixaka Lopez Mendizabal tolosarrearekin, Bilbora abiatu zen. Han, Sabin Etxean, ezagutu zuen Juan Manuel Bilbako, Mundakako Uri Buru Batzar-eko presidentea, gerora bere senarra izango zena eta honek bere herrira lanera joateko eskatu zion. Han jardun zuen Balendiñek, lehenengo batzokian eta gero mojen komentuan, gudariei laguntzen: jaten ematen, arropak garbitzen zein txukuntzen.

1937ko apirilaren 26an Gernikan suertatu zen. Hegazkinak azaldu eta bonbak lehertzen hasi zirenean, lubaki batean gorde behar izan zuten. Mundakara itzuli eta Queipo de Llanori irratiz entzun zionean euskaldunek kiskali zutela Gernika, Balendiñe suak hartu zuen. Horri irtenbidea emanaz idatzi zuen bere lehen poema, Gernika sutan.

Gerrak aurrera egin zuen ordea, eta Balendiñe eta bere lagunek Mundaka utzi eta Bilbora jo behar izan zuten Hiri hau galdutakoan berriz, Santanderrera. Eta hantxe, Eusko Jaurilaritzak Sardinero gainean zeukan etxean ezkondu zen, 1937ko azaroaren 6an, Juan Manuel Bilbaorekin. Lanestosan osatu zituzten ezkontza zibileko paperak.

Berrito ere alde egin beharko zutela jakinik, kontrako bidea hartu behar izan zuten, Mundaka, Zumaia eta abarrak atzera utzi eta Bidartera joan ziren. Ipar Euskal Herrira. Han, Jaurilaritzak eritegi modura zeukan La Roseraie etxean kokatu eta bertan jaio zen seme zaharrena, Josu, 1939ko abenduaren 12an.

Erbestea

Erbestearekin ordaindu zuen gaztetandiko abertzaleasuna. Gerra amaitu ondoren, errepresalien beldur, 1940ko martxoaren 13an Venezuelarako bidea hartu zuten Marsellako portuan, eta maiatzaren 5ean iritsi ziren, lehenik Caracasera eta gero Bolívar izenekora. Lehenengo senarrearekin handik lasterrera dibortziaturik, berrito ezkondu zen, bigarrengoan Rafael Calvo Leturiarekin.

Erbestean EAJren ekimenetan parte hartu zuen. Caracasen abertzaleen agerkarietan idatzi zuen Euzkadi, Euzko Gaztedi, Sabindarra eta Irrintzin batez ere. eta Radio Euzkadiko esatari ere jardun zuen.

Itzulera

Franco hil ostean, hainbat urtez, Euskal Herria eta Venezuelaren artean bizi izan eta gero, 1995ean behin betirako kokatu zen jaioterrian; bertan zituen bi seme zaharrenak. Venezuelaren geratu ziren, ordea, seme- -alaba gazteenak, biak Unibertsitateko irakasleak, Asier Arkitekturan eta Goiz--Eder Filosofian: "Horixe da gerra madarikatuak utzi didan azken hutsunea, erbestean gelditu diren seme eta alabarena" adierazten zuen.

Iturria: wikipedia

Azken eguneraketa: 2019-09-15

2. astea:

informazio biltzeko lana

ternet, entziklopediak edo

agututako emakumeen fitx

Datu orokorrak:

aiotza-heriotza data, jaiote

umearen aurkezpen la

on jaioa, gurasoak, ikasket

Izandako ibilbidea:

ko une esanguratsuak, lorp

Gertakari historikoak:

eragina izan zuten gertaka

3. astea:

Idazle izan.

Historian kapitulu berriak idatzi

Aurretik bildutako informazioa txukundu, idatzi, argazkiz hornitu eta irakasleari entregatu beharko diote ikasleek hirugarren astean.

Emaitza hau lortu nahi dugu: hasieran Euskal Herriko emakumeen historiara gerturatzeko erabili ditugun fitxen antzeko bat egitea. Jarraian, Plazida Otaño Odriozola bertsolariaren fitxa jaso dugu adibide bezala. Fitxa guztiak www.bestekaleak.eus webgunean eskuragarri daude.



Plazida Otaño Odriozola

Bertsolaria

1867-02-18 - 1954-02-18

Gipuzkoar bertsolaria izan zen, Joxe Bernardo Otañoren alaba, Adriana Otañoren ahizpa eta Pedro Mari Otañoren lehengusina. Ezagutzen den emakumeen lehen bat-bateko bertsoa berea da.

Zizurkilgo Errekalde baserrian jaioa, Joxe Bernardo Otaño eta Inazia Odriozolaren alaba zen. 1892an ezkondu zen Joxe Migel Zalduarekin eta Zizurkilgo Benta baserrian jarri ziren bizi izaten. Etorri handiko emakumea zen, erantzun azkarrak ematen trebea. Alaba bat izan zuten: Klara. 1950ean, Pedro Mari Otañori Zizurkilen egindako omenaldian parte hartu zuen. Hantxe abestu zuen lehendabiziko aldiz eremu publikoan, 84 urte zituela. 1954an hil zen Plazida Otaño. Egun, Zizurkilen dagoen Aiztondo bailarako liburutegiak bere izena darama.

Bertsoak

18 urte zituela, etxeko sukaldean, adinez aurrera zihoala esan omen zion aitari eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotea prestatzen joateko. Joxe Bernardo aitak bertso hau kantatu omen zion.

Iturria: wikipedia

« Ezkondu behar denala,
ho(r)i den baloria!
Hemezortzi urte den
hire edadia.
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik gabia,
hik aberastuko naun,
lehen banaiz pobria. »

Eta alaba Plazidak erantzun:

« Aita, zahartu ta gero,
garai hobia ez da,
neska gaztiak ere
badu bere kezka.
Ilea zuriturik
nobiorik ez-ta,
orduan alperrik da
soinua ta festa. »

Behin, Txirrita Zizurkilera joan eta Plazida Otaño ikusi omen zuen zelaian pagotxa ebakitzen ari zela. Bertso hau bota omen zion Txirritak

« Gauz bat esango dizut
modu ondraduan,
noski ez naiz hasiko
hemen endreduan.
Nonbait egongo zara
aldarte eruan,
gaur horla zabiltzanean
udako beruan,
ez da atsegin izango
zure inguruan. »



Eta baita Plazidak erantzun ere:

« Arrazoi horrek badu
bere parezera,
konprenituko dezu
mutila bazera.
Udarako beruaz
kejatzen al zera?
Lana hortan badezu
egiten atzera,
fraile sartu zintezke
komentu batera.

4. astea: Editore izan ... pausoz pauso.

Behin erronka burututa, eta beraz ariketan zehar atera duten Informazioa txukun eta argazkiekin hornituta, edukia argitaratzeko unea izango da. Horretarako, laugarren aste honetan, ikasleek **informazioa argitaratu** egin beharko dute **Txikipediara eta www.bestekaleak.eus webgunera** gehituz.


Lanketa honen bidez, ikasleak editore izango dira. Horregatik, komeni da eduki hau haiekin ariketa egin baino lehen lantzea. Txikipedian eta Beste Kaleak webgunean edukia gehitzeko jarraian jasotzen diren urratsak bestekaleak.eus webguneako **"PROIEKTU DIDAKTIKOA"** atalean bertan ere badituzue eskuragarri, gelan bertan ikasleekin lanketa egiteko.



Txikipedian idazten



- 1** Lehenengo, Txikipedia.eus helbidean sartu behar dugu, eta sortu nahi dugun artikulu hori bilatu.



- 2** Ondoren, emaitza ikusi eta jada Txikipedian sorturik dagoen edo ez ziurtatu behar dugu.



Ez dauka artikulurik idatzita Txikipedian.




Badauka artikulua Txikipedian.

3 Artikulu berri bat sortzeko, +TX botoia sakatuko dugu.



4 Ondoren, emaitza ikusi eta jada Txikipedian sorturik dagoen edo ez ziurtatu behar dugu.



5 Behin saioa hasita, lauki honetan idatziko dugu aldez aurretik irakasleak zuzendutako informazioa.

Q Wikipedia wikian bilatu

Saioa hasi gabe

Artikuluak Ertabaida +TX Sortu Sortu iturburua

Paragrafoa A Erreferentzia Txertatu ? A Orrialdea argitaratu...

Txikipedia: Balendine Albizu

Hemen idatzi behar dugu irakaslearekin kontrastatutako edukia

Testua idatzi baino lehen, irizpide hauek kontuan izan behar ditugu:

- Esaldi argiak eta motzak izango dira.
- Erraz ulertu daitezkeen esaldiak izan behar dute.
- Idatzitako informazioa betiere kontrastatutakoa eta fidagarria izango da.

6 Testua idazteko eta horri forma emateko, idazteko laukiaren gaineko elementuen barra baliatuko dugu.

<< Txikipedia txiki eta aske

Q Wikipedia wikian bilatu

Azala Txikipedia Txokoa Albisteak Aldaketa berriak Ausazko orria Laguntza Dohaintza egin Beste proiektuetan Tresnak Honanzko esteka duten orriak


Paragrafoa A Erreferentzia Txertatu ? A Orrialdea argitaratu...

Txikipedia: Balendine Albizu


placeholder

Testuaren atal ezberdinei diseinua emateko goiko barra hau erabiliko dugu. Testuaren izaera (izenburua, atalburua, paragrafoa), kolorea, nabardurak eta bestelako elementuak moldatu ditzakegu.

7 Irudiak txertatzeko goiko barra horretan bertan "txertatu" botoia sakatu eta "multimedia fitxategiak" aukeratu.



8 Nola jarri hiperestekak?



Norberaren taldean sartzeko, ikasleek irakasleak emandako erabiltzaile eta pasahitza sartu beharko dituzte. Ikasle bakoitzak bere erabiltzaile eta pasahitza izango du.







BESTEKALEAK

SAIOA HASI

[pasahitza ahaztu zait](#)

SARTU

2 Saioa hasita daudela, aurretik taldean landutako emakumearen fitxa formulario bidez irakasleari bidaltzeko aukera izango dute ikasleek.

BESTE**K**ALEAK

Ikasle Izena ▾

Fitxa

Kalearen Izena (mapatik lotuta baldin badauka)



Kargatu irudia

Examinar...

Izen-abizenak

Jaiotze data

Lanbidea

Heriotza data

Idatzi hemen informazioa...

GORDE

BIDALI IRAKASLEARI

3 Testuaren zuzenketak egiteko, hiru lauki egongo dira: lehenengo, testu originala, ondoren, irakaslearen oharrak zuzenketak egiteko eta azkenik, amaierako testua.

Igotako edukia pribatua egongo da irakasleak ikusi, onartu eta proiektu pedagogikora gehitzen duen arte. Irakasleak fitxa bat gehitzen duen momentuan, fitxa hori beste ikasleetako irakasleentzako ere ikusgai egongo da.

Irakasle izena ▼

Fitxa editatu

Kalearen Izena (mapatik lotuta baldin badauka)

Testu originala

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Praesent vitae semper sapien. Aenean purus eros, malesuada eu ex vitae, vulputate pretium mauris. Ut ut ante sit amet urna suscipit accumsan sollicitudin vel neque. Suspendisse cursus, tortor vel viverra mattis, arcu eros molestie justo, id hendrerit est eros scelerisque ligula. Sed imperdiet accumsan nibh. Pellentesque habitant morbi tristique senectus et netus et malesuada fames ac turpis egestas. Nulla tempus augue quis augue eleifend, a tristique urna eleifend. Fusce nulla lorem, rutrum sit amet bibendum ut, faucibus nec augue. Nullam mauris felis, interdum quis orci id, scelerisque aliquet augue.

Fusce feugiat finibus lacus nec venenatis. Curabitur mi massa, venenatis sed orci sit amet, semper eleifend arcu. Donec a libero sed sem rutrum facilisis. Ut vel eget arcu viverra tristique quis quis turpis. Donec sollicitudin risus at condimentum vehicula. Sed eget mi dictum felis aliquam eleifend eu laoreet dui. Quisque sit amet lacus maximus, aliquam erat eu, fringilla tellus. Aenean nibh dui, pulvinar id urna ut, pellentesque ornare tortor. Vestibulum ante ipsum primis in faucibus orci

Zure oharrak idatzi

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Praesent vitae semper sapien. Aenean purus eros, malesuada eu ex vitae, vulputate pretium mauris. Ut ut ante sit amet urna suscipit accumsan sollicitudin vel neque. Suspendisse cursus, tortor vel viverra mattis, arcu eros molestie justo, id hendrerit est eros scelerisque ligula. Sed imperdiet accumsan nibh. Pellentesque habitant morbi tristique senectus et netus et malesuada fames ac turpis egestas. Nulla tempus augue quis augue eleifend, a tristique urna eleifend. Fusce nulla lorem, rutrum sit amet bibendum ut, faucibus nec augue. Nullam mauris felis, interdum quis orci id, scelerisque aliquet augue.

Fusce feugiat finibus lacus nec venenatis. Curabitur mi massa, venenatis sed orci sit amet, semper eleifend arcu. Donec a libero sed sem rutrum facilisis. Ut vel eget arcu viverra tristique quis quis turpis. Donec sollicitudin risus at condimentum vehicula. Sed eget mi dictum felis aliquam eleifend eu laoreet dui. Quisque sit amet lacus maximus, aliquam erat eu, fringilla tellus. Aenean nibh dui, pulvinar id urna ut, pellentesque ornare tortor. Vestibulum ante ipsum primis in faucibus orci

Testu finala

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Praesent vitae semper sapien. Aenean purus eros, malesuada eu ex vitae, vulputate pretium mauris. Ut ut ante sit amet urna suscipit accumsan sollicitudin vel neque. Suspendisse cursus, tortor vel viverra mattis, arcu eros molestie justo, id hendrerit est eros scelerisque ligula. Sed imperdiet accumsan nibh. Pellentesque habitant morbi tristique senectus et netus et malesuada fames ac turpis egestas. Nulla tempus augue quis augue eleifend, a tristique urna eleifend. Fusce nulla lorem, rutrum sit amet bibendum ut, faucibus nec augue. Nullam mauris felis, interdum quis orci id, scelerisque aliquet augue.

Fusce feugiat finibus lacus nec venenatis. Curabitur mi massa, venenatis sed orci sit amet, semper eleifend arcu. Donec a libero sed sem rutrum facilisis. Ut vel eget arcu viverra tristique quis quis turpis. Donec sollicitudin risus at condimentum vehicula. Sed eget mi dictum felis aliquam eleifend eu laoreet dui. Quisque sit amet lacus maximus, aliquam erat eu, fringilla tellus. Aenean nibh dui, pulvinar id urna ut, pellentesque ornare tortor. Vestibulum ante ipsum primis in faucibus orci

BIDALI IKASLEARI ZUZENTZEKO

ARGITARATU PROIEKTU PEDAGOGIKOAN

5-6 asteak:

Bosgarren astean, bigarren ariketa proposatuko zaie ikasleei: *"Zerrendatu guztien artean herriko kaleak, eta adierazi zenbatek duten gizonezko izena, zenbatek emakumeena eta zenbat diren izen neutroak. Kopuru osoarekiko zer ehunekok dauka emakume-izena?"*

Adierazpenak jasotzen duen bezala, ariketa hau gauzatzeko, ikasleek hiru urratsi jarraitu beharko diete:

- Herriko kaleak zerrendatu.
- Zenbatek duten gizonezko izena, zenbatek emakumeena eta zenbat diren neutroak adierazi.
- Kopuru osoarekiko zer ehunekok daukan emakume izena atera.

Dakigun bezala, kaleei ematen zaizkien izenak lurralde baten historia nolabait markatu duten pertsonaiei dagozkie askotan, eta haiei oroimena gordetzeko modu bat dira. Ariketa honen bidez, ikasleek emakume-izena daramaten kaleen kopurua atera ahal izango dute, kaleen guztizko kopuruarekiko suposatzen duen ehunekoarekin batera, eta beraz, emakumezko historialari handiek herriko kaleetan duten lekuaren inguruan hausnartzeko aukera emango zaie.

Adibide modura, zerrendak honako itxura hau izan beharko luke. Talde bakoitzak sortzen duen zerrenda, baliagarria izango da hurrengo ariketarako; izan ere, zerrenda hori mapa batera eraman beharko dute, datuak modu bisual batean ikusteko.

KALEAREN IZENA	GENEROA
Agustina Lizarazu kalea	Emakumea
Tomas Garbizu kalea	Gizona
Aizkorri kalea	Neutroa
Aralar kalea	Neutroa
...	...


7. astea: Kale-izenak mapan kokatu

Zazpigarren astean, izendatutako kale-izenak mapan kokatu beharko dituzte. Modu horretan, herriko kaleen izenen genero-desoreka modu bisual batean ikusiko dute.

Ariketa hau egiteko, www.bestekaleak.eus webgunean sartu beharko dute ikasleek, talde bakoitzaren erabiltzaile-izena eta pasahitza sakatuz.

Behin taldearen atalaren barruan daudela, bi ekintza gauzatu ahalko dituzte:

- Mapan kale bat bilatu eta bere izena emakumezkoarena, gizonezkoarena edo neutroa den adieraztea.
- Maparen gainean margotzea. Horretarako, kaleak margotu eta haien inguruan fitxa bat bete beharko dute. Fitxak hurrengo itxura izango du:



8. astea: Ekintzaile bihurtu

Zortzigarren astean, eurek landutako emakumearen izenarekin plaka bat inprimatuko dute, eta udalera kale-izen hori jartzeko eskatuz eskaera idatzia bideratuko dute.

ELKARBANATU

Twitter, Facebook, Instagram, YouTube, Tumblr icons

Aurkitu

eulalia abaitua
2019-05-05

Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria.

Eulalia Abaitua euskal argazkilaritzaren bene-benetako aitzindaria izan zen. 1853ko urtarilaren 25ean Bilbon jaio eta Bizkaiko hiriburuan hil zen 1943ko irailaren 16an.

Maria Elvira Juliana izenarekin bataiatu zuten, baina, jaio eta egun gutxira bere ama hil egin zen, eta, hala, amaren izena hartu zuen omenaldi gisa, Eulalia. Eulaliaren aita, Luis de Abaitua, merkataria zen, eta, emaztea hiltzean, inude bat kontratatu zuen bai Eulalia bera bai Felipe seme zaharrena hezteko.

Familia aberatseko kide, Katalunian egin zituen Eulaliak ikasketak, Sarriako Bihotz Sakratuan, zehazki. Eulaliak egindako ikasketen berri, baina, apenas dugu, eskola hartako artxibo guztiak 1936ko gudan suntsitu zituzten-eta.

1872an, Juan Narciso de Olano y Pícaeva de Lesaca ontzi jabearekin ezkondu zen Abaitua, eta lau seme-alaba izan zituzten. Hirugarren Karlismak tarteko, Erresuma Batuko Liverpool hirira joan zen bizitzera familia bizkaitarra eta bertan ezagutu zuen Eulaliak argazkilaritza. Arte honekin erabat maiteminduta, argazkiak egiteko beharrezko gailuak erositu zituen Erresuma Batuan eta argazkilaritzako teknika ezberdinak ere ikasi zituen.

Behin guda amaituta, 1878 inguruan, Euskal Herrira itzuli ziren Abaitua, Olano y Pícaeva eta euren seme-alabak, eta txalet ingelesen tankera duen etxebizitza eraiki zuten Bilboko Begoña auzoko basilikaren ondoan: Pino jauregia. Etxeko sotoan argazkilaritza laborategia jarri zuen Eulaliak eta bertan abiatu zuen argazkilaritza gisa egindako bide oparoa.

1941ean, aspaldi alargundutako Eulaliak Pino jauregia utzi zuen azken urteak Bilboko Kale Nagusian igarotzeko. Bi urte geroago hil zen, 1943ko irailan.

Emakumeen egunerokoaren berri

Eulalia Abaitua da Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria, aurretik, bederen, ez baita beste emakumerik ezagutzen. Bere lan kutsuak zuri-beltzean eta 44x107 mm-ko kristalezko plaka estereoskopikoekin eginda daude, beste hamaika teknika ere menderatzen zituen amen.

BESTEKALEAK SAIOA HASI

eulalia abaitua
kalea
Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

eulalia abaitua
Kalea

PLAKA DESKARGATU

FITXA OSOA DESKARGATU

Emakume bakoitzaren fitxarekin batera, haren plaka deskargatzeko aukera dago. Fitxa horrekin eskaera idatzia bideratzea da azkeneko ekintza honetan luzatzen zaien erronka.

**EULALIA
ABAITUA
ALLENDE-ALAZAR
KALEA**

PLAKA DESKARGATU

FITXA OSOA DESKARGATU

9. astea:

Amaierako ebaluazioa

Prozesuaren amaieran, gure lanketaren bederatzigarren astean alegia, ikasleei autoebaluaziorako eta koebaluaziorako fitxak banatuko zaizkie. Horren bidez, honako zeregin hauek egin beharko dituzte:

- **Talde gisa lortutako helburuen betetze-maila zehaztu.** Horregatik, hasieratik, lanean hasi aurretik, irakaslearekin batera zehaztuko dute zein diren lortu nahi dituzten helburuak.
- **Taldeko kide bakoitza bete duen rolean baloratua izango da beste taldekideengatik.**
- **Nork bere buruaren balorazioa egingo du,** bi izar eta desio bat ariketaren bidez.
- **Irakaslearen balorazioa** ere jasoko da. Horretarako, honako fitxak banatuko zaizkie:

Talde gisa lortutako helburuen betetze-maila zehaztu

Proiektuaren amaieran, helburuak bete ditugun edo ez baloratuko dugu gelaxkan

✓ edo ✗ idatziz.

Helburua	Bete dugu?
1.	
2.	
3.	

Rolen ebaluazioa

Rolen ebaluazioa egiteko, talde bakoitzak taldekide bakoitzaren ebaluazioa egingo du. Ebaluazioa errazteko, rol bakoitzaren barruan irizpide zehatz batzuk definitu dira. Irizpide horiek hasieran aipatu ditugun eta lanketa horren bidez landu ditugun kompetentzietan oinarritzen dira.

Ikasleek item bakoitza puntuatu beharko dute, alboan dituzten piletan marratxoak margotuz. Helburua ez da bakoitzak nota orokor bat ateratzea, baizik eta item bakoitza ebaluatzea eta norberari hobetzeko balio izatea.



Behatzailea

Taldekidea:

Itemak:

- Entregatu behar izan diren lanen epeak ondo kontrolatu ditu.
- Taldean lanak egin behar izan direnean, taldekide guztien iritzia entzun daitezela bermatu du.
- Taldearen helburuak bete direla egiaztatu du.



Idazkaria

Taldekidea:

Itemak:

- Egiteko dauden lanak behar izan denean gogorarazi ditu.
- Taldeak egindako lanak modu txukun eta antolatu batean jasotzen joan da.
- Irakasleari entregatu zaizkion idatzi guztiak ondo zaindu ditu.






Koordinatzailea

Taldeakidea:

Itemak:

- Egin behar izan den lana argi eta garbi ezagutzeko ardura hartu du.
- Taldeko eginbeharrak taldekideen artean banatu ditu.
- Bakoitzak bere lana bete duela egiaztatu du.




Bozeramailea

Taldeakidea:

Itemak:

- Beste ikaskideei taldearen ekarpenen berri emateko ardura hartu du.
- Taldeko zalantzak irakasleari galdetzeko ardura hartu du.
- Entregan aurkezpena berak egin du.



Norberaren ebaluazioa

Bi izar eta desio bat



.....



.....



.....

Irakaslearen balorazioa

Case No.	Case Name	Case Type	Case Status	Case Date	Case Location	Case Description	Case Details	Case Notes	Case Attachments
1	John Doe	Case 1	Open	2023-01-01	New York	Case 1 Description	Case 1 Details	Case 1 Notes	Case 1 Attachments
2	Jane Smith	Case 2	Closed	2023-01-02	California	Case 2 Description	Case 2 Details	Case 2 Notes	Case 2 Attachments
3	Bob Johnson	Case 3	Pending	2023-01-03	Texas	Case 3 Description	Case 3 Details	Case 3 Notes	Case 3 Attachments
4	Alice Brown	Case 4	Open	2023-01-04	Florida	Case 4 Description	Case 4 Details	Case 4 Notes	Case 4 Attachments
5	Charlie Davis	Case 5	Closed	2023-01-05	Illinois	Case 5 Description	Case 5 Details	Case 5 Notes	Case 5 Attachments
6	Diana Prince	Case 6	Pending	2023-01-06	Washington	Case 6 Description	Case 6 Details	Case 6 Notes	Case 6 Attachments
7	Frank Miller	Case 7	Open	2023-01-07	Ohio	Case 7 Description	Case 7 Details	Case 7 Notes	Case 7 Attachments
8	Grace Lee	Case 8	Closed	2023-01-08	Michigan	Case 8 Description	Case 8 Details	Case 8 Notes	Case 8 Attachments
9	Henry Wilson	Case 9	Pending	2023-01-09	Georgia	Case 9 Description	Case 9 Details	Case 9 Notes	Case 9 Attachments
10	Ivy Clark	Case 10	Open	2023-01-10	Arizona	Case 10 Description	Case 10 Details	Case 10 Notes	Case 10 Attachments
11	Jack White	Case 11	Closed	2023-01-11	Colorado	Case 11 Description	Case 11 Details	Case 11 Notes	Case 11 Attachments
12	Karen Green	Case 12	Pending	2023-01-12	Connecticut	Case 12 Description	Case 12 Details	Case 12 Notes	Case 12 Attachments
13	Liam Black	Case 13	Open	2023-01-13	Delaware	Case 13 Description	Case 13 Details	Case 13 Notes	Case 13 Attachments
14	Mia Grey	Case 14	Closed	2023-01-14	Idaho	Case 14 Description	Case 14 Details	Case 14 Notes	Case 14 Attachments
15	Noah Blue	Case 15	Pending	2023-01-15	Indiana	Case 15 Description	Case 15 Details	Case 15 Notes	Case 15 Attachments
16	Olivia Red	Case 16	Open	2023-01-16	Iowa	Case 16 Description	Case 16 Details	Case 16 Notes	Case 16 Attachments
17	Peter Yellow	Case 17	Closed	2023-01-17	Kansas	Case 17 Description	Case 17 Details	Case 17 Notes	Case 17 Attachments
18	Quinn Purple	Case 18	Pending	2023-01-18	Kentucky	Case 18 Description	Case 18 Details	Case 18 Notes	Case 18 Attachments
19	Rachel Silver	Case 19	Open	2023-01-19	Louisiana	Case 19 Description	Case 19 Details	Case 19 Notes	Case 19 Attachments
20	Sam Gold	Case 20	Closed	2023-01-20	Maine	Case 20 Description	Case 20 Details	Case 20 Notes	Case 20 Attachments
21	Tina Bronze	Case 21	Pending	2023-01-21	Maryland	Case 21 Description	Case 21 Details	Case 21 Notes	Case 21 Attachments
22	Uma Copper	Case 22	Open	2023-01-22	Massachusetts	Case 22 Description	Case 22 Details	Case 22 Notes	Case 22 Attachments
23	Victor Iron	Case 23	Closed	2023-01-23	Minnesota	Case 23 Description	Case 23 Details	Case 23 Notes	Case 23 Attachments
24	Wendy Steel	Case 24	Pending	2023-01-24	Mississippi	Case 24 Description	Case 24 Details	Case 24 Notes	Case 24 Attachments
25	Xavier Tin	Case 25	Open	2023-01-25	Montana	Case 25 Description	Case 25 Details	Case 25 Notes	Case 25 Attachments
26	Yara Nickel	Case 26	Closed	2023-01-26	Nebraska	Case 26 Description	Case 26 Details	Case 26 Notes	Case 26 Attachments
27	Zoe Platinum	Case 27	Pending	2023-01-27	Nevada	Case 27 Description	Case 27 Details	Case 27 Notes	Case 27 Attachments
28	Adam Silver	Case 28	Open	2023-01-28	New Hampshire	Case 28 Description	Case 28 Details	Case 28 Notes	Case 28 Attachments
29	Bella Gold	Case 29	Closed	2023-01-29	New Jersey	Case 29 Description	Case 29 Details	Case 29 Notes	Case 29 Attachments
30	Charlie Bronze	Case 30	Pending	2023-01-30	New Mexico	Case 30 Description	Case 30 Details	Case 30 Notes	Case 30 Attachments
31	Diana Copper	Case 31	Open	2023-01-31	New York	Case 31 Description	Case 31 Details	Case 31 Notes	Case 31 Attachments
32	Frank Iron	Case 32	Closed	2023-02-01	North Carolina	Case 32 Description	Case 32 Details	Case 32 Notes	Case 32 Attachments
33	Grace Steel	Case 33	Pending	2023-02-02	North Dakota	Case 33 Description	Case 33 Details	Case 33 Notes	Case 33 Attachments
34	Henry Tin	Case 34	Open	2023-02-03	Ohio	Case 34 Description	Case 34 Details	Case 34 Notes	Case 34 Attachments
35	Ivy Nickel	Case 35	Closed	2023-02-04	Oklahoma	Case 35 Description	Case 35 Details	Case 35 Notes	Case 35 Attachments
36	Jack Platinum	Case 36	Pending	2023-02-05	Oregon	Case 36 Description	Case 36 Details	Case 36 Notes	Case 36 Attachments
37	Karen Silver	Case 37	Open	2023-02-06	Pennsylvania	Case 37 Description	Case 37 Details	Case 37 Notes	Case 37 Attachments
38	Liam Gold	Case 38	Closed	2023-02-07	Rhode Island	Case 38 Description	Case 38 Details	Case 38 Notes	Case 38 Attachments
39	Mia Bronze	Case 39	Pending	2023-02-08	South Carolina	Case 39 Description	Case 39 Details	Case 39 Notes	Case 39 Attachments
40	Noah Copper	Case 40	Open	2023-02-09	South Dakota	Case 40 Description	Case 40 Details	Case 40 Notes	Case 40 Attachments
41	Olivia Iron	Case 41	Closed	2023-02-10	Tennessee	Case 41 Description	Case 41 Details	Case 41 Notes	Case 41 Attachments
42	Peter Steel	Case 42	Pending	2023-02-11	Texas	Case 42 Description	Case 42 Details	Case 42 Notes	Case 42 Attachments
43	Quinn Tin	Case 4							

Data:

Irakaslea:

(Sinadura)

Irakaslearen balorazioa burutzeko honako irizpideak kontuan hartzea proposatzen dugu:


- **Euskararen zuzentasuna:** Ikasle talde bakoitzak igotako egingarriaren testuaren euskararen kalitatea neurtzea proposatzen da, ortografia eta lexiko zuzentasuna, besteak beste.
- **Narrazioa egiteko modua:** Ikasle taldeak narrazioa egiteko orduan erabili dituen baliabideak neurtzea proposatzea da. Hau da, testu idatzia, argazkiak eta bideoa igotzeko aukera dago. Elementu guztiak erabili dituzten edo soilik batzuk neurtzea proposatzen da.
- **Kontaketaren argitasuna:** Egingarria beraren deskribapena bere osotasunean ulargarria al den baloratzea proposatzen da.
- **Sorkuntzaren originaltasuna:** Ikasle taldeak egindako sorkuntzak elementu originalak al dituen baloratzea proposatzen da. Adibidez, ikasleei emandako informazioaz gain, bestelako ideiak eta elementuak erabili al diren.

Webgunearen erabilerari buruz.

Irakaslearen atalari buruz

Irakaslearen erregistroa eta atariaren erabilera

- 1 Irakasleak erregistroa egiteko www.bestekaleak.eus webgunean sartu beharko da eta azalean goian eskuinean dagoen **"PROIEKTU DIDAKTIKOA"** atalean sartu. Ezkerrean irekitzen den menuan ere ikusiko duzu sarbidea.



- 2 Bi aukera izango ditu irakasleak: saioa hasi edo erregistratu, plataforman sartzen den lehenengo aldia bada. Kasu bakoitzean, dagokion eremuak (e-posta, pasahitza) bete beharko ditu.

☰

BESTEKALEAK

SAIOA HASI PROIEKTU DIDAKTIKOAN →

ERREGISTRATU

Izena

Gazteleku edo aisialdi elkarteak ▼

Herria ▼

e-posta

Pasahitza

☐ Al klikatzen erregistratzen, onartzen dituzten [Condicionen](#). Geroago informazio gehiago lortu dezakezu [Gorde](#) zure informazioa.

GORDE

SAIOA HASI

e-posta

Pasahitza

[pasahitza ahaztu zait](#)


SARTU

35 BESTEKALEAK

● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●

3 Saioa hasita, irakasleak proiektu pedagogikoaren azalpena eta pantailan agertzen diren hurrengo atalak ikusiko ditu:



- PDF osoa jaitsi.
- Taldeak kudeatu.
- Fitxak ikusi. **Oharra: Ikasleek fitxak modu pribatuan igotzeko aukera dute irakasleak ikusteko, baina irakasleari dagokio fitxa horiek proiektu pedagogikoaren barruan publiko jartzeko ardura.*
- Mapak ikusi. **Oharra: Taldearen mapak ikusteko saioa berriro hasita da. Mapetan egindako aldaketak taldekakoak dira eta irakasleek sisteman dauden talde guztienak ikusten ahalko dituzte ez norberaren taldeenak bakarrik.*
- Beste ikastoletako mapak.



4



5 Esan bezala, irakaslearen atarian, irakasleak bere ikasleen mapak, beste ikastoletako mapak eta emakumeen fitxak eskuragarri izango ditu.



6 Prozesu osoaren jarraipena errazteko, lanketaren fase guztiak eta aste bakoitzean egin beharreko lanketaren azalpena eta beharrezko materialak bestekaleak.eus webgunean ere jaso ditugu.

BESTEKALEAK

Irakasle izena

Material didaktikoa

Atal honetan Beste Kaleak proiektu didaktikoa gelara eramateko baliabide eta tresna guztiak aurkituko dituzu. Unitate didaktikoa eta bestelako material zehatzagoak aurkituko dituzu.

JAITSI HEMEN

- Jaitsi Unitate didaktikoa
- Jaitsi lanketa-prozesua
- Jaitsi webgunearen erabilerari buruzko azalpena

Faseak asteka

- 1 Historiara gerturatzen
- 2 Historialari izan
- 3 Idazle izan
- 4 Editore izan
- 5-6 Zure herriko kaleak izendatu
- 7 Kale izenak mapan
- 8 Ekintzaille bihurtu
- 9 Amalerako ebaluazioa



1. astea: Euskal Herriko emakumeen historiara gerturatzen

Lanean hasi baino lehen, irakaslea webgunean erregistratuko, taldeak osatzeko eta gaian kokatzeko aurretiko lanketa egingo du. Erregistroa egiteko, bestekaleak.eus webgunean SAIOA HASI beharko du. Gaian kokatzen laguntzeko, bestekaleak.eus webguneko fitxak kontsultatu daitezke eta horiek ondoren gelan ikasleekin partekatu eta gidan aurkituko duzun dinamika baten bidez landu.

Saioa Hasi

Zirkuitu Ibilbidea 2 - 1 pabiloia
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T (+34) 943 376 716

